

BEGOÑA (I): IRUDIA

Bizkaitarrok benetan maite dogu Begoña'ko gure Ama eta beraganako zaletasunak garoaz, Bilbao'tarrak batez be, baiña Bizkai'tar guztiak berari buruz berba egitera.

1.300n. urtean bagillaren 15'an sortu eban Haro'ko Lopez'tar Diego bostgarrenak Bilbao izeneko lurretan uria. Alan diño berak "fago en Bilbao" eta orregaz esan gura dau Bilbao aurretik be an egoala. Baiña noiztik egoan erreka-inguruan Bilbao erria? Ez dakigu baiña ba-dirudi erromatarren aldi or egoala, naizta Fabliobriga izena Bilbao'ri dagokiona izan ez. Erromatarrek gure Nerbion'eri Nerba esaten eutsoen eta bear ba'da erreka oneri jarraituz sartu ziran Bizkai-barrura.

Urte orretan Bilbao Begoña'ren zati lez agertzen da eta auzo bi daukaz, bata salerosleena eta itxas-gizonena bestea. Urte orretan Santiago'ren eleizea agertzen da buru lez Begoña'gaz amarrenak erdibana egiñez. Eleiz orretara batez be etorten ziran ibaitik Doneiakue'ren erromesak.

1.300n. urte orretan sortzen da Bilbao Begoña'ren zati lez eta uria izateko, baiña ez da ori Begoña lenengoz aitatzen dauan agiria 1.162n. urtean aitatzen da toki lez.

Artagan muiñoaren gaiñean, Bilbao oiñetan chala, eleiza txiki bat zan Begoña'ko Andra Mari. Ezagutzen ez dogun eta iñoz nor dan be jakingo ez dogun irudigille batek egin eban Amaren irudia, uria sortu zan urte inguruan. Non egin ete zan? Bizkaia'n? Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n antzeko irudi asko dagoz. Guztiak dauke alkarren antza, baiña Begoña'koa da ederti baliorik aundiena dauana. Gauza arrigarria da olako irudi ederra ain eleiza txikian egoatea, baiña ez da aitzu bear Bizkai'ko Jaunaren eleizea zala eta Begoña monastegi bat zala. Dana dala, irudi ori izan da Bizkai'tarren biotzak beraganatu dauzana. Irudiak 1,17 neurki ditu goitik bera, goi-aurki baten jezarrita dago, begi ederak zabalik, barretxua espanetan, baru-jantzia eta gaiñekoa eta garrikoa garrian. Gaiñeko jantziak izurak daukaz belau-netan, oin biak oiñetakoakaz eta bien erdian azkenengo izurra. Aurrez, ezkerreko berna-gaiñean baiña erditik aurrean



dago umea. Onek be barruko jantzia ta gaiñekoa daukaz. Amaren esku ezkerre umearen sorbalda-gaiñean dago. Umearen aurpegia txeratsua eta agerbide aundikoa da, esku-meagaz bedeinkapena emoten dau eta ezkerrean liburu dauka zabalik. Ez da irudi geldia Binzantzioko irudien edo erromanikuen antzera. Beste toki batzutako irudiak, esatera-ko Fruniz'koa, geldiagoa ta artzagoa da, barretxua barik eta umea be aurrera begira dala. Ezaugarri oneik Fruniz'ko au lenagokoa dala esan nai dabe.

Olako irudia ikusi dabe gure aurretikoak, gitxi aldatuta ikusten dogu guk be. Len zurezko koroia eukan baiña kendu egin eutsoen eta urrezko bures-tuna ipiñi jakon. Lenago eskuman lorea eukan, baiña apurtu egin zan eta gaur aginte-makilea, zetroa, dauka.

Gaurko bizitzea ulertzeko lako irudia da, ez zarra eta ez gaztea, adin eldukua, bizitzea zer dan eta gurea zelakoa dan utertzeko lako. Bai, gure bizitza, gaurkoa, ulertzen dau, baita erdi-aroko euskaldun latzen bizitza be, edo beti hurrukan ebiltzan aide nagusi ankerrena. Gudaz naikotuta Begoña'ra eltzen ziranean, oraindiño espatak odotduta eta barrua gorrotoz eukela. euren damua agertzeko etorten ziran eta, curen Ama Andra Maria'ren oiñetan belauin-katzen ziran Artagan'en, torre-etxeai eta bizitza ankerrai begira egoan Ama eta Ama

onek bere semea aurkezten eutsen, bakea eskintzen eutsen. Begoña'ko Ama bakearen Ama da.

OLAZAR'tar Martin'ek

OARRA: Amar idaz-lan idatziko dodaz Begoña'ko Ama'ri buruz eta jakingarriak Bizkai'ko Aurrezki Kutxaren "Colección de Temas Vizeaños" liburuan agertzen dan eta Mañarikua'tar Andres'ena dan lanetik artuak dira. Ez da beti itzulpena egiten dodana, jakingarri batzuk gaiñeratzen dodaz, beste batzuk itzi. Eskerrik asko.

ZER ALDIZKARIA

**Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (3.000 pezeta) kontu onetan:
EUSKERAZALEAK**

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta croan BBK'ra eta ordaindu 3.000 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!